

3/2016 EBAZPENA, 2016EKO
URTARRILAREN 4EKOA, OSAKIDETZAKO
ZUZENDARI NAGUSIARENA; HORREN BIDEZ,
TGEEZ –GIPUZKOA FUNDAZIOARI 2016EKO
EKITALDIRAKO ESLEIPENA EGITEA
ONARTZEN DA

RESOLUCIÓN Nº 3 /2016, DE 4 DE ENERO
DE 2016, DEL DIRECTOR GENERAL DE
OSAKIDETZA, POR LA QUE SE APRUEBA LA
ASIGNACIÓN A LA FUNDACION CVTTH –
GIPUZKOA PARA EL EJERCICIO 2016.

Oinarria: Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa–Gipuzkoa Fundazioak honako jarduera hauek egiten ditu: odola eman dadin sustatzea, odola emateko zerbitzuak eskaintzea, odola eta odolaren osagaiak analitikoki prozesatzeko jarduerak egitea, ospitaleratuta dauden gaixoentzat izango den odola banatzea. Hori guztia Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten du, Debagoiena eskualdean izan ezik. Fundazioari laguntza teknikoa ematen dio Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak; izan ere, lankidetzata estua dauka zentro horrekin.

Resultando que la “Fundación Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos-Gipuzkoa”, centra sus actividades en la promoción de la donación de sangre, servicio de donación, en las operaciones de procesamiento analítico y de componentes, distribución de la sangre con destino a los enfermos hospitalizados, todo ello en el territorio histórico de Gipuzkoa excepto Alto Deba, junto con el apoyo técnico del Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos; con quien mantiene una estrecha relación de colaboración.

Oinarria: jarduera horiek egin ahal izateko, Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa–Gipuzkoa Fundazioak urteko diru-kopuru bat behar du, izaera nominalekoa, gastu arruntak ordaintzera bideratua. Izan ere, Gipuzkoako zentro publikoei eta zentro pribatuei egiten dizkien zerbitzuen fakturazio-funtzioak Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak hartzen ditu bere gain, zeina Osakidetza Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoko zerbitzu erakundea den.

Resultando que para poder efectuar las citadas actividades, la “Fundación Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos-Gipuzkoa”, precisa una asignación anual de carácter nominativo destinada a sufragar su gasto corriente, toda vez que las funciones de facturación de servicios prestados a Centros Públicos y Privados de Gipuzkoa, son asumidas por el Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos, Organización de servicios integrada en el Ente Público de Derecho Privado Osakidetza.

Gertaera: 2016eko ekitaldiko aurrekontuan jasotzen da Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa–Gipuzkoa Fundazioari zuzendutako diru-kopuru nominala. Zenbatekoa: 2.661.141 €

Considerando que el Presupuesto para el ejercicio 2016 recoge la necesidad de disponer de una asignación nominativa para la “Fundación Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos-Gipuzkoa”, por un importe de 2.661.141 €.

EBATZI DUT:

Lehena: Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa-Gipuzkoa Fundazioari diru-kopurua ematea. Fundazioak egiten dituen jarduerak finantzatzea da diru horren xedea. Honako hauek dira fundazioaren jarduerak: odola eman dadin sustatzea, odola emateko zerbitzuak eskaintzea, odola eta odolaren osagaiak analitikoki prozesatzeko jarduerak egitea, ospitaleratuta dauden gaixoentzat izango den odola banatzea. Hori guztia Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten du, Debagoiena eskualdean izan ezik. Fundazioak betetzen ditu Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak agindutako gidalerroak.

Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa-Gipuzkoa Fundazioa: 2.661.141 €.

Bigarrena. Ordainketak urtarriletik azarora egingo dira hilero; eta 220.000 €-koak izango dira. Abenduko zenbatekoa 241.141 €-koa izango da. Hiru hilabeterainoko aurrerakinak eman daitezke, ekitaldian gerta daitezkeen altxortegi-arazoei aurre egin ahal izateko.

Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa arduratuko da diru-kopurua kontrolatzeaz eta kudeatzeaz.

Hirugarrena. Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa-Gipuzkoa Fundazioak 2017ko martxoaren 31 baino lehen justifikatu behar du emandako diru-kopurua. Horretarako, hauek aurkeztu beharko ditu: diru-sarreraren eta gastuen egoera, 2016ko jarduerari buruzko memoria-txostena eta funtsak zertarako erabili diren justifikatzeko balio duen beste edozein agiri.

Laugarrena. Diru-kopuru horrekin batera ezin da

RESUELVO:

Primero. Conceder la asignación a la "Fundación Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos-Gipuzkoa", al objeto de cubrir sus necesidades financieras para hacer frente a sus actividades en la promoción de la donación de sangre, servicio de donación, en las operaciones de procesamiento analítico y de componentes, distribución de la sangre con destino a los enfermos hospitalizados, todo ello en el territorio histórico de Gipuzkoa excepto Alto Deba con arreglo a las directrices encomendadas por el Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos.

Fundación Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos-Gipuzkoa: 2.661.141 €.

Segundo. El libramiento de los pagos se llevará a cabo mensualmente por un importe de 220.000 €, los meses de enero a noviembre. El importe de diciembre será de 241.141 €.Será posible efectuar anticipos de, hasta 3 meses máximo, al objeto de hacer frente a las posibles tensiones de tesorería que pudieren tener lugar en el transcurso del ejercicio.

El órgano encargado del control y gestión de la asignación será el Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos.

Tercero. La justificación de la asignación concedida se efectuará antes del 31 de marzo del 2.017, presentando la "Fundación Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos-Gipuzkoa", Estado de Ingresos y gastos, memoria de actividades del ejercicio 2016 así como cualquier otra documentación que se considere oportuna para aclarar el destino de los fondos.

Cuarto. La presente asignación será

jaso Euskal Aukonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak xede bera betetzeko eman dezakeen beste ezein.

incompatible con cualquier otra que pueda conceder la Administración General de la Comunidad autónoma del País Vasco para idéntico destino.

Bosgarrena. Diru-kopurua zertarako eskatu eta eman den, horretarako erabili behar du Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa-Gipuzkoa Fundazioak. Fundazioak betebehari hori edo ezarritako betebehari bat betetzen ez badu, nahitaez itzuli beharko du emandako eta jasotako zenbatekoa, lege-interesekin batera.


Quinto. En caso de que la "Fundación Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos-Gipuzkoa" no utilice la asignación para el destino específico para el cual se solicitó y concedió, o en general incumpla las obligaciones establecidas, vendrá obligada a reintegrar la cuantía concedida y percibida más los intereses legales.

Seigarrena. Ebazpen hau jakinarazi behar zaio Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa-Gipuzkoa Fundazioari.

Sexto. Notificar la presente resolución a la "Fundación Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos-Gipuzkoa".

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urtarrilaren 4an

En Vitoria- Gasteiz, a 4 de enero del 2016



Iz./Fdo.: Jon Etxeberria Cruz
Zuzendari nagusia/Director General